

# 36ko gerran hildakoen ezagutza lortzeko elkartea sortu dute Donostian

Genozidioaren Biktimen Elkartearen lehen ekimena hurrengo larunbatean izango da, Donostian

Saioa Iraola Donostia

Genozidioaren Biktimen Elkartearen sortu dute Donostian, 36ko gerran fusilatutako eta erbesteratutako herritarren ezagutza lortzea helburu duen taldea. Garai hartako memoria, egia eta justizia berreskuratzea ere helburutzat hartu ditu Inaki Egaña bozeramaile eta historialariak. «Gezurra dirudien arren, 73 urte pasa dira eta kontu ilun asko daude oraindik. Oztupoak daude egia hori jakiteko; oraindik bidea dago egiteko», adierazi du Egaña. Bide horretan, elkartea sortzea izan dute lehen urratsa, eta hainbat ekimen egingo dituztela iragarri dute. Lehen ekimena irailaren 12an egingo dute, gaur zortzi, eguerdian, Donostian.

Donostia inguruan fusilatutako 60 senide inguruk osatzen dute Genozidioaren Biktimen Elkartea. Batzuk, 36ko gerran fusilatutako seme-alabak dira; Teresa Lasaie, esaterako. Eta beste batzuk, berriz, ilobak dira, Ana Saratxaga moduan. Baina denek ere gogoan dituzte 1936ko irailaren 13tik aurrera Francoren soldaduek Gipuzkoako hiriburuan egin zituzten «sarraskien» eraginak.

Orduan 80.000 lagun bizi ziren Donostian, baina egun horretan erdiek baino gehiagok erbestera alde egin behar izan zuten. 34.000 herritar geratu ziren Donostian, eta horietatik 385 fusilatu zituzten. «Herritarren %1 baino gehiago fusilatu zuten», zehaztu du Egaña. Horrez gain, 6.000 gudari eta miliziano donostiar errepublikaren aldeko borrokan lerrotu zirela adierazi du Egaña. Haietatik 470 gudu zelaian hil ziren.

Gainera, 776 haurrek erbestera joan behar izan zuten 1936ko iraillean; lehenengo Frantziara, eta ondorengo urteetan Erresuma Batua, Belgikara, Sobietar Batasunera... Egaña jakinarazi du 21 erbesteratu donostiar ere IAlemaniako gas ganberetan erail zituztela I. Mundu Gerran. Horiek gutxi balira bezala, beste 17 donostiar hil ziren 1937ko udan, Donostian izandako bonbardaketan ondorioz. Gerrarekin



Gezurra dirudien arren, 73 urte pasatu dira eta kontu ilun asko daude oraindik»

INAKI EGAÑA  
Historialaria

ez ziren amaituko hilketak, eta gerra ondorengo urteetan kartzela zigorrak bete zituzten 561 donostiar gehiago hil zirela adierazi du.

«Benetan eskandaluzko kopuruak dira», adierazi du Egaña. Egaña azaldu du estatuko funtzionarioek kopuru handietan eginko eraiketei deitzen zaiela genozidioa. «Horixe gertatu zen bete-betean Donostian; horregatik diogu genozidioa izan dela», nabarmendu du historialariak. Beraz, memoria, justizia, egia eta hildakoen ezagutzaren alde lanean jarraituko dutela azaldu du.

Urbasan omenaldia

36ko gerran eta ondorengo urteetan hildakoak omentzeko, ekitaldia antolatu dute biharko Fusilatuen Senideek, Urbasako Otsoportillon (Nafarroa). Nafarroako ezker abertzaleak ere bat egin du ekitaldirako deialdiarekin.



Genozidioaren Biktimen Elkarteko kideak, atzo, Donostian. JON URBE/ARP

## Epea luzatu diete alderdiei 36ko gerran kendutako jabetzak berreskuratzeko

Eskariek daukaten konplexutasun historikoagatik eta dokumentalagatik hartu dute erabakia

S.I.

36ko gerran frankistek alderdi politikoei kendu zizkieten ondasunak itzultzeko eskaerak egiteko epea luzatzea erabaki du Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak. 1936-1939. urteetan lapurtutako ondasunak eta esku-

bideak itzultzeko legea 1998an egin zuten, baina orain dela bi urte moldatu zuten. Lege horrek modua ematen die alderdi politikoei gerra garaian ebatsitako ondasunak berreskuratzeko.

Eskari bakoitza aztertzen denbora luzea behar dutela argudiatuta luzatu du epea Espainiako Gobernuak. «Eskariek dakarten konplexutasun historikoagatik eta dokumentalagatik, ezinezkoa da automatikoki egitea. Kasuak banaka aztertu eta bahetu behar dira», adierazi dute Espainiako Gobernuaren iturriek. Beraz, oraindik aukera dute alderdiei.



Metodo on batekin errazagoa da euskara ikastea.

Bai, euskara ikastea errazagoa izan daiteke. Ika euskaltegien metodologiarekin, dena erraz eta dibertigarriagoa izan daitekeela ikusiko duzu.



euskara errazago egiten

Matrikula iraila

www.ikanet.net

IRUÑA 948 222 246 | GASTEIZ 945 154 341 | ERRIOXA 945 601 087 | BORTZIRIAK 948 637 796  
BARAÑAIN 948 188 325 | ATARRABIA 948 332 660 | LEITZALDEA 948 610 776 | MALERREKA 948 451 555